



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urriaren 9an

80 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

—Mozioa, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Zuñiga eta Acedo arteko C-132 errepidearen aldaketa egiteko plana alda dezan (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 2000ko ekainaren 27ko 241/2000 eta 242/2000 foru dekretuetan jasotako manu batzuk alda ditzan. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, babes ofizialeko etxebizitzak egiten bete denari buruzkoa (6. or.).

—Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, osasun laguntza oinarritzakoa garatzeko programa berriaren aplikazioari buruzkoa (6. or.).

—Kohesio funtsen bitartez finantzaturiko jardueri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Tabakoari buruzko foru planari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Tafallako “Miguel Induráin” udal belodromoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Ripagaina garatzeko tramitearen egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—San Adriángo “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoari emandako dirulaguntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Ikastetxe publikoetako lanbide heziketako heziketa-zikloen eskaintzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Esnearen sektoreko ustiatzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Sarrigurengo merkataritza gunearen tramitearen egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko hiru lanpostu –horietatik bi, ofizialki onetsitako euskara-tituluarekin– lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Izendapena (16. or.).
- Soldata aurrerakinei eta etxebizitza erosteko edo bestelako xedeetarako maileguei buruzko arauak (16. or.).

**I SAILA:**

**Parlamentuko Jarduera:**

- 2000ko irailean egindako bilerak (19. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2000ko irailean sartu diren dokumentuen zerrenda (21. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarrek, 2000ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu zuen Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko ekainaren 6ko 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozemaileen Batzarra entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**Lehena.** Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999

Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena presako prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epe bat irekiko da, 2000ko urriaren 20an eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2000ko urriaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Zuñiga eta Acedo arteko C-132 errepidearen aldaketa egiteko plana alda dezan**

### *FORU PARLAMENTARI JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE JAUNAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Zuñiga eta Acedo arteko C-132 errepidearen aldaketa egiteko plana alda dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan eta Azpiegitura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko urriaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du batzordean presaz eztabaida eta onets dadin:

Jakin dugu heldu den urriaren bian Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuak Lizarra eta Gasteiz lotzen dituen C-132 errepideko trafikoa hiru hilabetetarako moztuko duela, Acedo eta Zuñiga herrien parean.

Neurri horrek, ekonomia aldetik eta denbora aldetik, kalte egingen die komunikabide hori erabiltzen duten guztiei. Bestalde, neurriak berekin ekarriko du Lana eta Zuñigako udalek zenbait pertsona kontratatu behar izatea –eta horren kostua ordaintzea– bi herriak lotzen dituen bide asfaltatu arriskutsutik ibilgailuak sar ez daitezen.

Hori guztia dela eta, foru parlamentari honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, onets dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Zuñiga eta Acedo arteko C-132 errepidea aldatzeko lanetako plana alda dezan, ez dadin itxita gera obrek irauten duten bitartean.

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: José Manuel Goikoetxea Askorbe

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 2000ko ekainaren 27ko 241/2000 eta 242/2000 foru dekretuetan jasotako manu batzuk alda ditzan**

### *GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak, 2000ko irailaren 29an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 2000ko ekainaren 27ko 241/2000 eta 242/2000 foru dekretuetan jasotako manu batzuk alda ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 2000ko ekainaren 27ko 241/2000 eta 242/2000 foru dekretuetan jasotako manu batzuk alda ditzan**

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea 2000ko ekainaren 27ko 241/2000 eta 242/2000 foru dekretuak jarraian adierazten den bezala alda ditzan:

- 2000ko ekainaren 27ko 242/2000 Foru Dekretuaren azkeneko xedapenetako bigarrenak ondokoa esan behar du: "foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra. 2000ko urtarrilaren lehenaz geroztik izanen ditu ondorioak".

- 2000ko ekainaren 27ko 242/2000 Foru Dekretuan beste artikulua bat gehitu behar da. Hona testua: "foru dekretu honetan araututako dirulaguntzak beste administrazio publiko batzuek helburu berberetarako ezartzen dituztenekin batera jaso ahal izanen dira".

- Halaber, bi dekretuetan, bi hilabeteko epean ebazpen espresik ez emateagatik edo jakinarazpenik ez izateagatik eskariak ezetsizat joko direla adierazten duten idatz-zatiak aldatu behar dira, eskaria baietsi nahiz ezetsi beti erantzun espresua eman dezan Administrazioak, administratuak bere burua defendatzeko aukera eduki ahal izateko.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Babes ofizialeko etxebizitzak egiten bete denari buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI JOSE M<sup>a</sup> AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 2an egindako bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak babes ofizialeko etxebizitzak egiten bete denari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta

hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Egungo etxebizitza plana dela eta:

1. Zein neurritan bete da babes ofizialeko etxebizitzak egiteko plana? Jakin nahi dugu zenbat etxebizitza egin diren urtero, aurreikusitakoekin alderatuta. Gertatu den desbideraketa eta horretarako arrazoiak ezagutu nahi ditugu.

2. Datu bera nahi dugu etxebizitzak zaharbertzeari eta alokatzeari, mailegu intunduen zenbatekoari eta etxebizitza hutsak erabiltzeari dagokienez.

Bi kasuetan, datuak eskualdeka azaltzea nahi dugu.

Iruñean, 2000ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## **Osasun laguntza oinarrizkoa garatzeko programa berriaren aplikazioari buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 2an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak osasun laguntza oinarrizkoa garatzeko programa berriaren aplikazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, "Osasun Laguntza Oinarrizkoa Garatzeko Programa" berriari buruz idatziz erantzuteko ondoko galdera izapidatzeko eskatu du.

Joan den irailaren 21ean, Nafarroako Gobernu Osasun kontseilariak jakitera eman zuen "Osasun Laguntza Oinarrizkoa Garatzeko Progra-

ma” bat aplikatu nahi zuela, osasun zerbitzuak herritarren eskakizunei egokitzeko.

Programa hori hobeki ezagutzeko, ondokoak ezagutu nahi ditugu:

- Zertan datza programa hori?
- Zein neurri aurreikusi ditu programak?

– Zein oinarrizko eskualde edo herri ukitzen ditu eta nola?

– Neurriak hartzeko eta proposamenak gauzatzeko irizpideak.

– Aurrekontuetan zein euskarri du programak?

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## Kohesio funtsen bitartez finantzaturiko jardueri buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Kohesio funtsen bitartez finantzaturiko jardueri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko uztailaren 6ko 59 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzuteko, kohesio funtsen bitartez finantzaturiko jardueri buruz. Hona hemen Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Kohesio Funtsen bidezko finantzazioa lortzeko, proiektuak garai batean ekonomi eta Ogasun Ministerioak egiten zituen deialdietara aurkezten ziren. Une honetan Ogasun Ministerioa arduratzen da deialdi horietaz.

1999an ez zen deialdirik egin urte hartan egin beharreko lanetarako. Bai, ordea, 1996. urtearen amaieran 1997-1999 urteetan egin beharreko lanetarako.

1996. urtearen amaieran egindako deialdiaren ondorioz, eta Europako Batzordeak 1997/11/5ean hartutako erabakiaren bidez, “Nafarroan, Ebro ibaiaren arroan, hiriko hondakin uren araztegia egiteko proiektua” sartu zen; kostua 9.612.496

eurokoa zen, eta Europako laguntza, berriz, 7.689.997 eurokoa, 1997, 1998 eta 1999. urteetan betetzeko.

Geroago, 99/11/17 Erabakiaren bidez, proiektu hori eta Arazuriko Araztegiarena bakar batean bateratu ziren, “Nafarroako hondakin uren araztegia” izenekoan, alegia. Azken proiektu hori 1997-1999 epean egitekoa zen.

1999. urtearen amaieran beste deialdi bat egin zen 2000-2001 biurtekoan garatu beharreko proiektuetarako; deialdi horren ondorioz Ekonomi eta Ogasun Ministerioak, apirilaren 26ko jakinarazpen batean, adierazi zuen “Iruñerriko Mankomunitatearen Zentroa (1. aldea), tratamendu organikoak” izenekoan sartuko zela programazioan, 1.580 milioi pezetako aurrekontuarekin eta % 80ko dirulaguntzekin.

Foru Ogasunaren dirusarrerrei buruz, esan:

a) 1999an, abian jarri diren aipatutako jarduketak direla eta, dirusarrerak 425.024.076 pezetakoak izan direla.

b) 2.000ko urtarrilean, 97-99 tarteko jarduketak direla eta, dirusarrerak 715.586.752 pezetakoak izan direla.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 18an

Ekonomi eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## Tabakoari buruzko foru planari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Tabakoari buruzko foru planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko uztailaren 6ko 59 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak idatziz erantzuteko galdera egin zuen 2000ko ekainaren 30ean. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1. Noizko aurreikusi du Osasun Departamentuak Tabakoari buruzko foru plana igortzea Nafarroako Parlamentura?

Behin planaren proiektuari hasierako onespina eman ondoko prozesuan elkarteek eta entitate-

ek egindako ekarpenak onetsi eta hari behin betiko onespina ematen zaionean igorriko dio Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari Tabakoari buruzko foru planaren proiektua, 2000ko maiatzaren 15eko Gobernuaren erabakian ezarritakoari jarraituz.

2. Hedabide batek argitaratu duenez, egia al da foru plana jada abian jarri dela indarrean egon gabe eta Biltzar honek ezagutu eta onetsi gabe?

Tabakoari buruzko foru plana ez da plan gisa abian jarri. Soilik planean jasota egon eta lehendik egiten ziren jarduketak egiten ari dira.

Gainerako jarduketak planean bertan jasotako kronoprogramaren arabera eginen dira, Nafarroako Gobernuak behin betiko onetsi eta Parlamentuan behar den tramitazioa egin ondoren, noski.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 7an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Tafallako “Miguel Induráin” udal belodromoari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan Antonio Andiñon Gastón jaunak Tafallako “Miguel Induráin” udal belodromoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko uztailaren 6ko 59 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Antonio Andiñon Gastón jaunak idatziz erantzuteko galdera

egin du Tafallako belodromoari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Zergatik aldatu nahi du Nafarroako Gobernuak “Miguel Induráin” belodromoari buruzko lankidetz hitzarmena, nazioko gobernuak baimendutakoa eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak 2000ko apirilaren 10eko konpromisoaren bitartez berretsitakoa?

1. Nafarroako Gobernuak ez du inolaz ere nazioko gobernuak baimendu eta Gizarte Ongizate kontseilariak berretsitako hitzarmena aldatu nahi; izan ere, aipatzen den lankidetz hitzarmenak, 2000ko apirilaren 10ean Hezkuntza eta Kultura ministroak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak eta Tafallako alkateak sinatutakoak, bere denboran baimendutako lankidetz hitzarme-



na sinatzeko behar diren jarduketak egiteko konpromisoa ezarri baizik ez du egiten.

2. Horrenbestez, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak hura berrikusteko baldintzak eta diru-ekarpenak, besteak beste, jasotzen dituen testua igorri zuen.

3. Zirriborroa -inolaz ere ez lankidetzaz hitzarmena edo akordioa- aldatzeko proposamenak helburu du Tafallako Udala izatea obrak esleitzeko prozesua burutu eta obraren kostuaren soberakinak bereganatzen dituen. Proposamenaren oinarrian Departamentuak markaturiko filosofia dago: kirol instalazioetan inbertsioak egiteko dirulaguntzak jasotzen dituzten udalek eramatea aurrera obraren adjudikazioa eta beren gain hartzea obraren hasierako kostua gainditzen duen guztia.

Jarraibide hori 1997/1999 Kirol Azpiegiturei buruzko Plan Zuzentzailean sartu zen eta egungo 2000/2003 Kirol Azpiegiturei buruzko Plan Zuzentzailean ere jaso da. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako Administrazioaren dirulaguntzak eman eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 4. artikulua babesean kirol instalazioak egiteko sinaturiko lankidetzaz hitzarmenetan, toki entitate edo kirol

elkarte onuradunen betebeharren artean sartzen dira obraren adjudikazioa eta haien kostua eta hura gainditzen duen guztia ordaintzea.

Gaia hobeki aztertzeko, adibide gisa jar daiteke belodromoari buruzko hasierako hitzarmena, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak eta Tafallako alkate José Iribas Sánchez de Boado jaunak 1995eko maiatzaren 19an sinatua. Hartan, besteak beste, hirugarren klausulan, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren zenbatekoa ezarri zen (423.918.750 pezeta), eta azken lerrokadan ondokoa erantsi zen: "hasiera batean egindako proiektuaren edozein hobekuntza, obraren zabaltzea nahiz kostu Tafallako Udalak ordainduko du; Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren dirulaguntza ez da handituko".

Halaber, laugarren klausulan adierazten zen Tafallako Udalak adjudikazio prozesua eta obraren egitea ebatziko zuela.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 7an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

## Ripagaina garatzeko tramitearen egoerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak Ripagaina garatzeko tramitearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak galdera egin du, Ripagaina eta Sarriguren aldean garapenaren inguruko zenbait gairi buruz. Hona hemen Ingurugiro, Lurraldearen

Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Ripagaina etxebizitzetarako eremu gisa garatzeko beharrezkoa da udalez gaindiko plan sektorial bat, eta oraingoz behintzat ez da horrelakorik aurkeztu tramitatzeko.

2.- Sarrigurengo kirolaldea Sarrigurengo udalez gaindiko plan sektorialak antolatutako eremua barrenean dago eta beraz, plan horren tramitazioaren urratsak ere bete behar ditu. Une hauetan, jendaurreko epea amaiturik, hurrengo pausoa aurkeztutako alegazioak ebatzea da, behin betikoz onartzeko ondoren.

3.- Sarriguren eta Gorraizen arteko eremuak, orain, lurzoru ez-urbanizagarriaren kalifikazioa du, baina Eguesko udal planak, oraindik indarra hartu ez badu ere, eremu horretako zati baterako, ekonomia, industria eta zerbitzuetako jardueretarako lurzoru urbanizagarria du aurreikusirik. Aipatu udal

planak indarra hartu ondoren, hura garatzeko plan partzial bat tramitatu beharko da.

4.- Deus ere ez, ez baitago, gure iritziz, Eguesko Udalari alde horren garapenaren truke ordainik emateko inolako arrazoirik.

5.- Eguesko Udalaren eta Burlatako udalaren artean akordio bat lortzeko ahaleginetan ari gara, Sarriguren eta Ripagainako poligonoak modu bateratuan garatu ahal izateko. Akordio horrek

berak esanen du, erdiesten bada, Burlatako Udalari ordainik ematea bidezkoa den ala ez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 8an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegi Ros

## San Adriángo “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoari emandako dirulaguntzari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak San Adriángo “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoari emandako dirulaguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 20ko 51 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera bat egin du San Adriángo “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoak eskatutako dirulaguntzari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 15eko 204/1999 Foru Aginduaren bitartez, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoak eta udaletako musika eskolak hobetzeko, zabaltzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egiteko Nafarroako Foru Komunitateko udal

eta kontzejuendako dirulaguntzen deialdia ebatzi zen. Ebazpen hartan sarturik zegoen, behin-behineko (15 eguneko epean Toki Administrazioak luzatu beharreko bideragarritasun ekonomikoaren txostena aurkeztu behar zen), “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoaren jolas patioa hesi batekin konpontzeko obra, 1.031.250 pezetako aurrekontuarekin eta 670.313 pezetako dirulaguntzarekin (aurrekontuaren % 65).

1999ko abuztuaren 20an San Adriángo Udalak behin-behineko emandako dirulaguntzari uko egiteko eskaera egin zuen, eta horretarako alegatu zuen obra ez zela egin behar “korporazio berriak beste irizpide bat zuelako”.

Halere, 2000ko ekitaldiko dirulaguntzen deialdian bi kontusail daude, guztira 4.720.000 pezeta egiten dutenak eta dirulaguntzaren portzentaia, % 65ekoa (3.068.000 pezeta), hesi metalikoa jartzeko eta ikastetxeko patioa egokitzeko lanetarako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 7an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

## Ikastetxe publikoetako lanbide heziketako heziketa-zikloen eskaintzari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan Antonio Andi6n Gast6n jaunak ikastetxe publikoetako lanbide heziketako heziketa-zikloen eskaintzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko uztailaren 6ko 59 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 16an

Lehendakaria: Jos6 Luis Castej6n Garru6s

### ERANTZUNA

Socialistas de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Antonio Andi6n Gast6n jaunak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako lanbide heziketako heziketa zikloen eskaintzari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Hauexek dira ikastetxe publikoetan 2000-2001 ikasturtean eskainiko diren heziketa zikloak:

Ikastetxea	Erdi mailako zikloak	Goi mailako zikloak
Altsasuko B.H.I.	Mekanizazioa Soldadura eta Galdaragintza Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa	Merkataritza kudeaketa eta marketinga
Lekaroz-Elizondoko B.H.I.	Landa ingurunean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea Administrazio kudeaketa Mekanizazioa	Administrazioa eta Finantzak
Corellako Arte Eskola	Eraikuntzako akaberak	Dekorazioko proiektuak eta obra zuzendaritza: interiorismoa Publizitateko grafika Altzarigintza
Lizarrako "Tierra Estella" B.H.I.	Merkataritza Mekanizazioa Hotz, girotze eta bero instalazioak jarri eta mantentzea Erizaintzako zainketa lagungarria	Administrazioa eta Finantzak Informatika sistemen administrazioa Industri ekipoen mantenimendua
Irunberriko "Sierra de Leyre" B.H.I.	Landa ingurunean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa	Industri ekipoen mantenimendua
Azkoiengo B.H.I.	Nekazaritzako ustiategi intentsiboak Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa	Industri ekipoen mantenimendua
San Adriango "Ega" B.H.I.	Merkataritza Kontserbagintza eta instalazioen mantentzea	Elikagaien industria
Tafallako B.H.I.	Administrazio kudeaketa Ekipo eta instalazio elektroteknikoak Mekanizazioa Soldadura eta galdaragintza	Administrazio eta Finantzak Instalazio elektroteknikoak Mekanizazio bidezko produkzioa
Tuterako "ETI" B.H.I.	Administrazio kudeaketa Merkataritza Ekipo eta instalazio elektroteknikoak Kontsumoko ekipo elektroteknikoak Mekanizazioa Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa Erizaintzako zainketa lagungarria	Administrazio eta Finantzak Idazkaritza Merkataritza Kudeaketa eta Markentiga Produktu elektronikoen garapena Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak Mekanizazio bidezko produkzioa Industri ekipoen mantenimendua
Tuterako "Benjamin de Tudela" B.H.I.	Landa ingurunean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea Ile-apainketa	Informatika Sistemen Administrazioa Informatika aplikazioen garapena

Ikastetxea	Erdi mailako zikloak	Goi mailako zikloak
Berako "Toki Ona" B.H.I.	Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa	Industri ekipoen mantenimendua
Burlatako "Ibaialde" B.H.I.	Sukaldaritza Jatetxe eta tabernako zerbitzuak Apaingintzako estetika pertsonala Ile-apainketa Hotz, girotze eta bero instalazioen jarri eta mantentzea Jantzigintza	Zaharberritzea Estetika
Uharteko B.H.I.	Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa	
Iruñeko "Agroforestal" B.H.I.	Lorezaintza  Nekazaritzako ustiategi estentsiboak  Baso lanak eta natur ingurunea zaintzeko lanak	Nekazaritza eta abere-hazkuntzako enpresen kudeaketa eta antolaketa Natur eta paisaje baliabideen kudeaketa eta antolaketa
Iruñeko "Virgen del Camino" B.H.I.	Ekipo eta instalazio elektroteknikoak Mekanizazioa Soldadura eta galdaragintza Ibilgailuen elektromekanika Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa	Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa Instalazio elektroteknikoak Metal eraikuntzak Mekanizazio bidezko produkzioa Industri ekipoen mantenimendua
Iruñeko "M <sup>a</sup> Ana Sanz"	Administrazio kudeaketa Merkataritza	Administrazioa eta Finantzak Idazkaritza Nazioarteko Merkataritza Merkataritza kudeaketa eta marketinga Kontsumitzailearendako zerbitzuak Informatika sistemen administrazioa Informatika aplikazioen garapena
Iruñeko "Adaptación social" B.H.I.		Gizarte- eta kultur-animazioa Haur Hezkuntza Gizarte integrazioa
Iruñeko Arte Eskola	Ebanisteria Artistikoa Autoedizioa	Grabaketa eta Estanpatze teknikak eskulturako arte aplikatuak Dekorazioko proiektuak eta obra zuzendaritza: eskaparatismoa eta eszenografia Argazkigintza artistikoa
Iruñeko "Julio Caro Baroja" B.H.I.	Ekipo eta instalazio elektroteknikoak Mekanizazioa Arotz-lanak eta altzariak neurrira egin eta instalatzea	Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak Mekanizazio bidezko produkzioa
Iruñeko "Sanitaria" B.H.I.	Erizaintzako zainketa lagungarria Farmazia	Diagnosi-irudiak Diagnosi klinikoko laborategia Hortz protesiak Ingurugiro osasuna
Iruñeko "Donapea" B.H.I.	Administrazio kudeaketa Kontsumoko ekipo elektronikoak Karrozeria Ibilgailuen elektromekanika Kimikako plantako prozesu operazioak Laborategia	Administrazioa eta Finantzak Idazkaritza Produktu elektronikoaren garapena Telekomunikazio eta Informatika sistemak Automozioa Analisisa eta kontrola

2. Heziketa zikloen dinamismoa dela eta, haien ezarpena asmo berritzaileekin planifikatu da. Zenbait ziklo indarraldi mugatua dute, 5 edo 10 urtekoa, gehienez, eta beste beste ziklo batzuek, berriz, malgutasun handiagoa dute, lanbideen bilakaeraren arabera moldatzeko adinakoa. Bestalde, heziketa ziklo guztien ezaugarriak ez dira beti berberak. Bereziki, hiru ziklo mota daude: batzuk balio anitzekoak dira, produkzio jarduera gehienekin bat egiten dutenak. Esan daiteke, ia ziurtasun osoaz, nolabaiteko jarduera ekonomiko (nekazaritza, industria edo zerbitzuak) dagoen tokian zenbait lanbidetan trebatzeko premia sortzen dela. Horixe gertatzen da, kasu baterako, Instalazio eta Mantentze Elektromekanikoaren erdi mailako zikloarekin. Beste ziklo batzuk espezializatuagoak dira eta jarduera ekonomikoak gehiago baldintzatzen ditu, esate baterako, Elikagaien Industriaren goi mailako zikloa. Hirugarrenik, Arte Plastikoetako eta Diseinuko zikloek tratamendu berezia eskatzen dute, bi alderdiak, produktzioa eta artistikoa, bateratu ahal izateko.

Aurreko bereizketa horren ondorioz, zein ziklo eta non eskaintzen diren aldatu egiten da. Adibidez, badira toki bakar batean eskaintzen diren zikloak, hain zuzen ere horiei loturiko ekonomi edo lan jarduera dagoen tokian eskaintzen direlako; era berean, badira zenbait ziklo bi edo hiru ikastetxetan eskaintzen direnak, eskola barruti batzuetako ikasleei zuzendurik; amaitzeko, balio asko dituzten eta lan munduak gehien eskatzen dituen heziketa zikloak ikastetxe batean baino gehiagotan eskaintzen dira.

Ziklo bat toki batean eta ez bestean ezartzean eragina duen aldagai nagusia da haren produkzio ingurunean dauden lan aukerak. Zikloa jartzeko tokiaren eta toki horretako lan-ehunaren arteko menpekotasuna handia izateko arrazoiak:

.Eskualde bateko biztanleei eskaintzen zaien lanbide heziketa eta produkzio merkatu hurbileko beharrak eta aukerak bat etortzea.

- Lanbide heziketaren helburuetako bat da jardunean dauden langileei eskaintzea, enpleguko egonkortasuna bermatzeko eta enpresen lehia-kortasuna hobetzeko.

.Heziketa zikloetan ari diren gazteei lanbide praktikak, matrikulaturik dauden ikasketen araberrakoak, enpresetan eskaintzeko betebeharrak eskatzen du prestakuntzaren eskaintza eta produkzio jarduera bat etortzea.

Produkzio inguruneari buruzko informazioa eman duten iturriak, nagusiki hauexek izan dira:

- Toki entitateek eta ikastetxeek beraiek egindako azterlanak, Industri, Merkataritza, turismo eta Lan Departamentuak eginiko industriaren eta produkzioaren maparekin batera. Halaber, Ekonomi Departamentuak edo Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganberak eginiko toki edo probintzi mailako beste azterlan batzuk ere aintzat hartu dira.

- INEM, Nafarroako bulegoetan eginiko kontratazio eta lan eskaeren estatistiken bidez.

- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeekin izandako elkarrizketa eta lankidetzak.

Beste alde batetik, barrutietako heziketa zikloen eskaintza kopurutan tajutzeko, kontuan hartzen da Derrigorrezko Bigarren hezkuntza edo Batxilergoa amaitzen duten gazteek Lanbide Heziketako ikasketez egiten duten eskaria. Kasu guztietan zaila bada ere aurreneko tokian hautatutako zikloan tokia ziurtatzea, helburua da eskaintzen diren tokien kopuruak egiten den eskariari erantzutea.

3. Ikastetxe publikoetan erdi mailako 60 heziketa ziklo eskaintzen ari dira, guztira 1.600 toki inguru, eta goi mailako 61 ziklo, 1.650 toki inguru.

4. Hasteko, kontuan hartu beharra dago askotan zikloa eskatzearen atzean ez dagoela beti ikasketa horietan aritzeko asmo sendoa, batez ere goi mailan. Matrikula berrestera maiz gertatzen dira bajak. Goi mailako zenbait ziklotan aurreinskripzioen % 50 baino gutxiago berretsi dira. Selektibitatea ez gainditzeko arriskuaren aurrean (Unibertsitatera joateko ezinbesteko baldintza baita, eta ez, ordea, goi mailako zikloetarako), ohikoa da goi mailako ziklo batean egitea aurreinskripzioa. Halere, ekainean zikloen eskaintza handitu zen, zazpi multzotan, eskariak gora egin zuelako, eta irailean gauza bera gertatuko da. Erdi mailan, berriz, esan dezakegu eskariaren alderatuta tokien kopurua nahikoa dela eta DBHko ikasleen % 85 baino gehiagok tokia izan du aurrenekoz eskatu zuen zikloan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 7an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

## Esnearen sektoreko ustiatzei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak esnearen sektoreko ustiatzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko taldeko foru parlamentari José Andrés

Burguete Torres jaunak galdera bat egin du esnearen sektoreko ustiatzei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Galderei egin diren ordena berean erantzungo diet:

1.- 1.167.205 k.

2.- 20.968.394 k.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## Sarrigurengo merkataritza gunearen tramitearen egoerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak Sarrigurengo merkataritza gunearen tramitearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak galdera egin du zenbait merkataritza guneren inguruko gai batzuei buruz. Hona hemen Ingurugiro, Lurraldearen eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1.- Sarrigurengo aukera eremuaren alde Sarrigurengo udalez gaindiko plan sektorialak antolatutako eremuaren barrenean dago eta beraz, plan horren tramitazioaren urratsak ere

bete behar ditu. Une hauetan, jendaurreko epea amaiturik, hurrengo pausoa aurkeztutako alegazioak ebatzea da, behin betikoz onartzeko ondoren.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren iritziz, alde egokia izan liteke merkataritza eta aisiarako gunea bat eraikitzeke, beste aukera batzuen artean. Nafarroako Gobernuak ez du oraindik erabakirik hartu horren inguruan. Merkataritza eta aisiarako aukeraren alde egiten bada, merkataritzaren antolamenduan eskumena duen agintearen oniritzia beharko litzateke aldeaz aurretik.

2.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak, 2000ko uztailaren 18ko 811 Foru Aginduaren bidez, behin betikoz onetsi zuen Iruñeko HAPOa U.I.XV/u.O.-3 unitatean (Intendentziako orubea) aldatzeko espedientea. Espediente horren xedea, oraingo une honetan, ez da azalera handiko merkataritzaguna bat ezartzea eta beraz, ez ditu 154/93 Foru Dekretuaren zehaztapenak bete behar. Horregatik, aipatu 811/2000 Foru Aginduak adierazten du xedapen zatian espedientea onesteak ez duela ekartzen

espedientean aipatzen den merkataritzako gunea onestea, "horretarako berariazko beste espediente bat tramitatu beharko baita, dagokion garaian aplikatu beharreko lege xedapenak betez". Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ez du merkataritza arloko espedienterik ezagutzen orube horretarako, eta ez du iritzirik horren gainean.

3.- Barañaingo HAPOn aldaketa hura, Barañainen merkataritza gunea handi bat eraikitzeko asmoa gauzatzeko eskatutakoa, ezetsi egin zuen Nafarroako Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak, 2000ko apirilaren 7an hartutako erabaki baten bidez. Erabaki hori, bai eta organo horrek berak administrazio isilbide baiezkoaren ziurtagiria luzatzeari uko egiteko 2000ko maiatzaren 12an

hartu zuena ere, Barañaingo Udalak eta Río Center S.L.k aurkeztutako administrazio errekurtsoren xede izan dira. Errekurtsor hori 2000ko abuztuaren 28ko Gobernu Erabakiak ezetsi du.

Nafarroako Gobernuaren irizpidea da Nafarroako Lurraldearen Antolamenduko Batzordearen eskumenekoak diren erabakiei begirune osoa izatea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 8an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko hiru lanpostu –horietatik bi, ofizialki onetsitako euskara-tituluarekin– lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa**

**Izendapena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko uztailearen 20an egindako bilkuran, bestek beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena eman zuen administrari –euskara tituludun– izateko lanpostu bati uko egiteko M.<sup>a</sup> Jesús Gamboa Zabalo andreak aurkeztu zuen idazkiari buruz; haren izendapena 2000ko uztailearen 5eko Mahaiaren Erabakiaz egin zen. Txosten hori ikusi ondoren, ERABAKI DA:

1. M.<sup>a</sup> Jesús Gamboa Zabalo andreak administrari –euskara tituludun– izateko lanpostu bati uko egin diola jakitun dela adieraztea.

2. Iñaki Miguéliz Garcés jauna izendatzea administrari –euskara tituludun– izateko lanpostu baterako, administrari izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiko 8.2 oinarrian ezarritakoari jarraituz, bera baita Biltzarreko Mahaiak uztailearen 5ean onetsi zuen izangaien zerrendako hurrengoa, hain zuzen ere, lanpostua hutsik baitago hari uko egin zaionez.

Aipatu deialdiko 8. oinarrian ezarritakoari jarraituz, erabaki hau jakinarazi eta ondoko hamar egun naturaletan hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**Soldata aurrerakinei eta etxebizitza erosteko edo bestelako xedeetarako maileguei buruzko arauak**

2000ko urriaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, bestek beste, ondoko erabakia hartu zuen:

2000ko ekainaren 8an, Nafarroako Parlamentuko ordezkariak eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen Langileen Batzarrak amaiera eman zioten egindako negoziazioari. Negoziazio horren emaitza 2000ko ekainaren 12ko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakian jaso zen. Erabakiak Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen lan baldintzak onetsi zituen (2000ko ekainaren 22ko 53. NPAO).

5.7. puntuak etxebizitza maileguen eta soldata aurrerakinak aipatzen ditu. Hauxe dio:

“7. Etxebizitza maileguen eta soldata aurrerakinen kasuan, 7.450.000 pezetaraino gehituko da kontusaila. Etxebizitza erosteko edo bestelako xedeetarako maileguak eskatu ahal izanen dira, 650.000 PTAkoak, korriturik gabekoak; zenbateko hori bost urteko epean itzuli beharko da, urtean 14 hilabetekotan. Kontzeptu horiek direla eta egun indarrean dauden laguntzak aurrekoari egokitu zaizkio korrituak ez ordaintzeari eta itzultzeko epeari dagokienez; hori guztia kasuan kasuko araua indarrean sartu ondoren aplikatuko da. Horretarako, arauetan behar diren aldaketak eginen dira, eta laguntzak emateko prozedura, lehentasunak eta gainerako baldintzak zehaztuko dira.

Soldataren aurrerakinek indarreko arauen arabera jarraituko dute.”



Mahaiko eta Langileen Batzarreko ordezkariak eginiko bilkuran, aipatu arau horiek egiteko oinarriak ezarri dira.

Aurrekoaren indarrez, eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikulua eman-dako ahalmenak erabiliz, ondokoa erabaki dugu:

**1.** Soldata aurrerakinei eta etxebizitza erosteko edo bestelako xedeetarako maileguei buruzko arauak onestea, Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lan egiten duten funtzionarioen Langileen batzarren arteko 2000 eta 2001. urteetarako Hitzarmenaren 5.7. artikulua garatzeko.

**2.** Erabaki hau eta arauak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Soldata aurrerakinei eta etxebizitza erosteko edo beste xedeetarako maileguei buruzko arauak**

Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lan egiten duten funtzionarioen Langileen batzarren arteko 2000 eta 2001. urteetarako Mahaiaren 2000ko ekainaren 12ko erabakiaz onetsitako Hitzarmenaren 5.7. artikulua ezarri zuen soldata aurrerakinei eta maileguei dagokienez "arauetan behar diren aldaketak eginen dira, eta laguntzak emateko prozedura, lehenetsunak eta gainerako baldintzak zehaztuko direla".

Bidezkoa da, horrenbestez, behar diren neurriak hartzea ondoko arauak onetsiz:

### **I. kapitulua Soldata aurrerakinak**

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan jardunean dauden langileek soldata aurrerakin bat eskatu ahal izanen dute, Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetako Zerbitzuari zuzendutako eskari bat eginez.

**Bigarrena.** Aurrerakina oinarritzko ordainsarien (oinarritzko soldata, gradua eta antzinasun saria) bi halako izanen da, eta hogeitazentz (18 hilabete) itzuliko da, nominan deskontua eginez.

**Hirugarrena.** Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egiaztatuko du eskaria jardunean dagoen langile batena dela, eskatzailea ez dela beste aurrerakin bat ordaintzen ari, aurre-

rakin bat eman zitzaion azken alditik 18 hilabete baino gehiago iragan direla, aurrekontu-ekitaldi berean ez zaiola bestelako laguntzarik eman eta aurrekontuan horretarako dirua badagoela.

**Laugarrena.** Horiek guztiak egiaztaturik, Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak Biltzarreko Mahaiari dagokion erabaki proposamena igorriko dio.

**Bosgarrena.** Parlamentuko Administrazioan baja emandako langileek nahiz ordainsariak galtzea edo etetea ekartzen duten egoeretan dauden langileek eman zaien aurrerakina guztiz ordaindu beharko dute egoera berri horretara pasatu baino lehen.

### **II. kapitulua Etxebizitza erosteko edo bestelako xedeetarako maileguak**

**Seigarrena.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan jardunean ari diren langileek korriturik gabeko maileguak eskatu ahal izanen dituzte ondoko xedeetako baterako:

1. Ohiko etxebizitza erostea.

2. Tratamendu mediko, ebakuntza edo egonaldia medikoak, protesiak eta abar, gizarte aurreikuspeneko araubideak ordaintzen ez dituenak.

3. Ohiko etxebizitza zaharberritzea eta hartan konponketak nahiz erreformak egitea.

4. Aurreko arrazoiez gainera, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak laguntza horiek eman ahal izanen ditu eskaria egin duenak behar berezia duenean.

Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko da Nafarroako Erregistro Orokorrean, Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari zuzenduta. Eskarian berariaz aipatuko da laguntzaren xedea.

**Zazpigarrena.** Eskarien kopuruak hasiera batean aurrekontuetan dagoen zenbatekoa gainditzen badu, ondoko irizpideei jarraituko zaie:

a) Laguntzak seigarren arauan agertzen den lehenetsun ordenan emanen dira.

b) Xede bakoitzaren baitan, lehenetsuna emanen zaie, betiere, Biltzarren kargura lehendik mailegurik izan ez duten langileei.

c) Hirugarrenik, lehenetsuna emanen zaie laguntzen xede izan daitezkeen gastuak ordaintzeko hartutako maileguak –finantza-korrituak dituztenak– ordaintzeko eskariei.

**Zortzigarrena.** Mailegua 650.000 pezetakoa izanen da, korriturik gabekoa, eta hirurogeita hamar ordainketatan (5 urte) itzuli beharko da, nominan deskontua eginez.

**Bederatzigarrena.** Hurrengoak izanen dira mailegua ez emateko arrazoiak:

– Eskatzailea beste mailegu bat ordaintzen egotea, edozein dela ere haren helburua, edo bost urte iragan ez izatea azken mailegua eman zitzaionetik.

– Aurrekontu-ekitaldi berean soldata aurrerakin bat jaso izatea.

– Aurrekontuan dirurik ez izatea.

**Hamargarrena.** Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egiaztatuko du eskaria jardunean dagoen langileak egin duela, eta ez dagoela mailegurik ez emateko aurreikusitako kasuetako batean. Halaber, eskatu ahal izanen da agiri bidez egiaztatzea mailegua eskatutako xederako erabili dela.

**Hamaikagarrena.** Horiek guztiak egiaztaturik, Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak Biltzarreko Mahaiari dagokion erabaki proposamena igorriko dio.

**Hamabigarrena.** Parlamentuko Administrazioan baja emandako langileek nahiz ordainsariak galtzea edo etetea ekartzen duten egoeretan dauden langileek eman zaien aurrerakina guztiz ordaindu beharko dute egoera berri horretara pasatu baino lehen.

#### **Aldi baterako xedapena**

1. Indarrik gabe gelditzen dira urte hasieratik arau hauek indarrean sartu diren arte ohiko etxebizitza erosteko maileguen eskariak.

2. Arau hauek indarrean sartu aurretik eskaririk aurkeztu dutenek, baldin eta mailegu hauek eskatu nahi badituzte hemen zehaztutako baldintzetan, berriz eskatu beharko dute, arauetan ezarritakoari egokituta, arauak indarrean sartu eta 15 eguneko epean. Mailegu hauen eskatzaile berriek epe berean aurkeztu beharko dituzte bere eskariak. Hala eta guztiz ere, lehentasuna emanen zaie arau hauek onetsi aurretik eginiko eskariei.

#### **Xedapen gehigarria**

1. Eskuarki, laguntza hauetarako lehen deialdi bat eginen da ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1etik 15era bitartean. Lehen deialdi horretan aurkeztutako eskariak aurrekontuetan dagoen dirua gaintzen badute, ezarritako irizpideak aplikatuko dira. Eskari bat baino gehiago egoera berean badaude, zozketa eginen da haien artean. Deialdi horretan erantzun positiborik ez duten eskariek lehentasuna izanen dute bigarren deialdian.

2. Urtarrilaren 15a iragan eta aurrekontuan dagoen dirua erabili ez bada, bigarren deialdi bat eginen da, ekitaldi bereko ekainaren 1etik 15era bitartean. Lehen deialdirako aurrekusi den prozedura berari jarraituko zaio.

3. Ekainaren 15a iragan eta aurrekontuan dagoen dirua erabili ez bada, berdin eskatu ahal izanen dira soldata aurrerakinak nahiz maileguak. Kasu horretan, Erregistro Orokorrean aurkeztu diren ordena berean emanen dira laguntzak.

**Azken xedapena.** Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra.

---

**I saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

## 2000ko irailean egindako bilerak

### MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

11, 15, 18, 22 eta 25ean.

### OSOKO BILKURA

14an:

– a) Aprobación, si procede, de la tramitación directa y en lectura única del proyecto de ley foral por la que se declara de utilidad pública y se aprueba la desafectación de 81.937 metros cuadrados de terreno comunal perteneciente al Ayuntamiento de Lumbier.

b) Debate y votación del proyecto de ley foral por la que se declara de utilidad pública y se aprueba la desafectación de 81.937 metros cuadrados de terreno comunal perteneciente al Ayuntamiento de Lumbier.

– a) Aprobación, si procede, de la tramitación directa y en lectura única del proyecto de ley foral de concesión de un suplemento de crédito para el Departamento de Educación y Cultura.

b) Debate y votación del proyecto de ley foral de concesión de un suplemento de crédito para el Departamento de Educación y Cultura.

– Debate y votación del Convenio de cooperación entre la Administración General del Estado (Ministerio del Interior) y la Administración de la Comunidad Foral de Navarra (Departamento de Presidencia, Justicia e Interior) para la construcción y financiación de un nuevo centro penitenciario en dicha Comunidad.

– Debate y votación del Convenio de colaboración con el Ministerio para las Administraciones Públicas y la Comunidad Foral de Navarra para el desarrollo de los Planes de Formación Continua, acogidos al 2º Acuerdo de Formación Continua, para las Administraciones Públicas.

—Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a crear la Dirección General de Familia, presentada por el G.P. Convergencia de Demócratas de Navarra.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a aplicar diversas normas para la conformación del Consejo Audiovisual, presentada por el G.P. Socialistas del Parlamento de Navarra.

– Debate y votación de la moción por la que el Parlamento de Navarra manifiesta su voluntad en relación con las causas del Servicio Militar Obligatorio y de la Prestación Social Sustitutoria, presentada por el G.P. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a propiciar la elaboración de un Pacto Local, presentada por el G.P. Socialistas del Parlamento de Navarra.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a elaborar una Ley General de Comercio, presentada por el G.P. Socialistas del Parlamento de Navarra.

– Pregunta sobre el cumplimiento del mandato parlamentario en relación con las obras de ampliación del Colegio Público de Castejón, presentada por el G.P. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua.

– Adopción de la resolución que proceda en relación con el acuerdo de la Junta de Portavoces del pasado día 28 de agosto, proponiendo la interposición del recurso de inconstitucionalidad contra el artículo 43 del Real Decreto-Ley 6/2000, de 23 de junio, de medidas urgentes de intensificación de la competencia en mercados de bienes y servicios.

28an:

– Toma en consideración, si procediese, de la proposición de Ley Foral de modificación de la Ley Foral 10/1999, de 6 de abril, por la que se declara Parque Natural las Bardenas Reales de Navarra, presentada por el Ilmo. Sr. D. José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena.

– Toma en consideración, si procediese, de la proposición de Ley Foral de modificación de la Ley Foral 9/1999, de 17 de junio, de espacios

naturales de Navarra, presentada por el Ilmo. Sr. D. José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena.

– Toma en consideración, si procediese, de la proposición de Ley Foral del Consejo General Audiovisual de Navarra, presentada por el G.P. Socialistas del Parlamento de Navarra.

– Debate y votación del Convenio a suscribir con el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales para la adhesión al Consorcio para la presencia y promoción del alberguismo juvenil.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a modificar la normativa para la adjudicación de viviendas de protección oficial, presentada por el G.P. Euskal Herritarrok.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de España a anular la deuda de los países más pobres, presentada por el G.P. Socialistas del Parlamento de Navarra.

– Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno del Estado español a cancelar la deuda externa, presentada por los G.P. Euskal Herritarrok, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Convergencia de Demócratas de Navarra y Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.

– Debate y votación de la moción por la que el Parlamento de Navarra se adhiere a la Marcha Mundial de las Mujeres 2000, presentada por los G.P. Euskal Herritarrok, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Convergencia de Demócratas de Navarra, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco y Mixto.

– Designación de la terna para la defensa, ante el Congreso de los Diputados, de la proposición de Ley para la igualdad jurídica de las parejas estables.

– Designación de la terna para la defensa, ante el Congreso de los Diputados, de la proposición sobre el uso de las lenguas del Estado en la emisión de sellos y otros efectos postales.

– Decreto Foral 8/2000, de 10 de enero, por el que se modifica la Ley Foral 19/1992, de 30 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

#### **INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA**

12an:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eska-

turik, merkataritza eremu handien arautzeari buruz informa dezan.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskaturik, merkataritza eremu handien arautzeari buruz informa dezan.

15ean:

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbara Ofizialeko lehendakariak merkataritza eremu handien araubideari buruz informatuko du.

20an:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskaturik, Eurovestir, S.A. enpresarentzako enpresa-proiektu berriaren berri eman dezan.

#### **HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA**

13an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Pirinioaz gairdiko bidearen proiektuaren egoeraz informazioa emateko.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Orkoiengo saihebsidea egiteko lanak aurrera ditzan.

#### **NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEA**

15ean:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, ardién "scrapie" izeneko gaitzari buruz informatzeko.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Napalen urperatutako ardiei buruz informatzeko.

– Rubio Salvatierra andreak (Askotarikoa) egindako galdera, Napalen lurperatutako ardiei buruzkoa.

19an:

– Lan bilera. Bertan bere jardueren berri eman du "Asociación de Criadores y Seleccionadores de oveja de raza navarra" izenekoak.

**OSASUN BATZORDEA**

19 eta 26an:

– Farmazi laguntzari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko zuzenketak eztabaidatzen duen ponentziaren bilera.

**NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO  
LAN ISTRIPUAK AZTERTZEKO  
BATZORDE BEREZIA**

20an:

– Lan plana zehaztea.

**GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA**

21ean:

– Lan bilera. Alargun-pentsioak berdintzearen aldeko plataformako ordezkariak agertuko dira bertan, egiten dituzten eskarien berri emateko.

29an:

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren agerraldia, adingabeei neurri penalak ezartzeari buruz informatzeko.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 241/2000 eta 242/2000 Foru Dekretuetan jasotako manu batzuk aldatzea.

**HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**

26an:

– Lan bilera. Bertan, Nafarroako Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Sareko ordezkariak agertuko dira premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunari buruz informatzeko.

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU,  
ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA**

27an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskaturik, Artatza-Zudairiko arrain-haztegiaren egoerari buruz informatzeko.

---

**Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2000ko irailean sartu diren dokumentuen zerrenda**

**1ean:**

– Idazkia, Nafarroako Kontseiluarena. Haren bitartez, antzinako Entzutegia zaharberritzearen ACS-ACR EABrekin sinatutako obra-kontratua eteteko Parlamentuak hartutako erabakia dela-eta egindako irizpen-eskaria jaso izanaren berri ematen du.

– Idazkia, Nafarroako Kontseiluarena. Haren bitartez, A-15aren emakida Audenasari eman izanari buruzko hainbat afera dela-eta egindako irizpen-eskaria jaso izanaren berri ematen du.

– Idazkia, Nafarroako Kontseiluarena. Haren bitartez, Ondasun eta Zerbitzuen Merkatuetan Lehia Areagotzeko Presako Neurriei buruzko ekainaren 23ko 6/2000 Errege Dekretu-Legearen 43. artikulua kontratu jarri beharreko konstituzio-aurkakotasunaren errekurtsoa dela-eta egindako irizpen-eskaria jaso izanaren berri ematen du.

– Foru Lege proiektua, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari kreditu osagarri bat ematen diona, Nafarroako Gobernuak igorria.

**4an:**

– Idazkia, Parque Nogalera etxebizitzaren elkar-tearena. Haren bitartez, Parlamentuari eskatu diote Sarrigurengo lurra irabazi asmorik gabeko sustatzaileei zuzenean lagatu ahal izateko Gobernuak aurkeztu duen lege proiektua onetsi dezan eta adjudikazioak kontrola ditzen.

– Galdera, María Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentariak aurkeztua, zaharrentzako podologi laguntzaren programari buruzkoa.

**5ean:**

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Harekin batera, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29 eta 30. artikulua aldatzeko itunaren testua.

– Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoango tiro-eremu militarra kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzen.

– Galdera, María Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentariak egin, aurtengo Nafarroako Jaialdiei buruzkoa.

#### **6an:**

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Haren bitartez, Nafarroako Gobernuo Lehendakariak Foru Araubide Batzordean agerraldia egin dezan eskatu dute, Plan Hidrologiko Nazionala dela-eta Gobernuak zer iritzi duen azlatzearen.

– Idazkia, ACS-ACR Enpresen Aldi Baterako Batasunarena. Harekin batera, entzutegi zaharra Nafarroako Parlamentuaren egoitzarako zaharberritu eta egokitzeko obren uztailako eta abuztuko ziurtagiriak.

– Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bitartez, Defentsa Ministerioa eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dira Aitzoingo kuarteleko tiro poligonoa berehala itxi dezaten.

#### **7an:**

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Haren bitartez, ikasturtearen hasierari buruz eta 2000-2001 ikasturterako hezkuntza proiektuei buruz informazioa emateko eskaera egin du Hezkuntza kontseilariak.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Haren bitartez, Ondasun eta Zerbitzuen Merkatuetan Lehia Areagotzeko Presako Neurriei buruzko ekainaren 23ko 6/2000 Errege Dekretu-legearen 43. artikuluen kontrako konstituzio-aurkakotasunaren errekurtsioari buruzko informazioa eskatu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Harekin batera, Nafarroako 1999ko Kontu Orokorren I eta II. alean antzemandako akatsen zerrenda.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Harekin batera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eskatutako informazioa, titulartasun publikoko zentroak kudeatzen dituzten irabazi asmoko enpresek Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuarekin sinatutako kontratuak direla eta.

– Idazkia, Parlamentuaren egoitza berriaren proiektua egin duen taldearena, ACS-ACR EABK 2000ko abuztuaren 28ko idazkian egindako oharre buruzkoa.

– Idazkia, Parlamentuaren egoitza berriaren obren zuzendaritza teknikoarena, obra horri buruzko hainbat konturi buruzkoa.

– Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 98 eta 140. artikulua eta hamargarren xedapen gehigarria aldatzekoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Haren bitartez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia eskatu du, Hidrologi Plan Nazionalaren proiektuaren berri eman dezan.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da familientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 241/2000 eta 242/2000 Foru Dekretuetan jasotako manu batzuk alda ditzan.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Haren bitartez, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia eskatu dute, uda honetako kultur jardunaren berri eman dezan.

– Nafarroan etxebizitzarako laguntza neurriak arautzen dituen irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko 20.c), 23.c) eta 148. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru dekretu hori 621/1999 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.

– Idazkia, ACS-ACR EABrena. Haren bitartez, uztaila eta abuztuari buruz zuzendari fakultatiboak emandako ziurtagiriarekin ados ez dagoela adierazi du.

– Idazkia, ACS-ACR EABrena. Haren bitartez, 6. ziurtagiriaren zenbatekoa ordaintzea eskatu du.

– Idazkia, Nafarroako Kontseiluarena. Haren bitartez, A-15a ustiatzeko Audenasari emandako emakidari buruzko dokumentazioa eskatu du, Parlamentuko Mahaiak eskatu dion txostena egin ahal izateko.

#### **8an:**

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Harekin batera, 2000ko lehen hiruhilekoan abalaturako zenbatekoei eta emandako abalei buruzko informazioa.

-8/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Idazkia, Kontuen Ganbararena. Harekin batera, Tafallako Udaleri buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa.

– Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, etorkizuneko autobus geltokiari buruzko azterlan teknikoen finantzaziorri buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lanbide karreara aplikatzeko baremoen onespeneri buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, mahastien landatzeari buruzkoa.

– Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001 urteko Aurrekontuetan sartzeko ikastetxe itunduetako langileen lansariak.

– Galdera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, funtzionarioak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeari buruzkoa.

– Idazkia, ACS-ACR EABrna. 2000ko uztailearen 18an aurkeztutakoaren jarraipena da.

#### 11n:

– Idazkia, Antonio Ansorena Urriza jaunarena. Harekin batera, gelazain nagusi izateko deialdirako oroit-idazkia.

– Galdera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, hizkuntzen ikasketak baliokidetzeari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, SOS Cuba Gobernuaz Kanpoko Erakundeari emandako dirulaguntzei buruzkoa.

– Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

– Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Tafallako belodromoaren obrei eta haien finantzaketari buruzkoa.

– Idazkia, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunarena. Haren bitartez, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra dela-eta egindako txostenak eskatu ditu.

– Galdera, foru parlamentari, Juan Cruz Alli Aranguren jaunak egina, basurdearen ehiza dela-eta egindako inkestari buruzkoa.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Haren bitartez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren agerraldia eskatu

dute, Iruña-Logroño autobieren finantzaketari buruz informa dezan.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Haren bitartez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena irakurketa bakarraren prozedura baliatuz tramita dadin eskatu dute.

#### 12an:

– Idazkia, Concepción Aguado Simón andreak, lanposturaino joateko gastuak PFEZren aitorpenean sartu ez izanari buruzkoa.

– Zuzenketa, Toki Hitzarmen bat egitea erraz dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko mozioaren erabaki proposamenari Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina. Mozioa Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

– Zuzenketa, Familiaren Zuzendaritza Nagusia sor dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko mozioaren erabaki proposamenari Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina. Mozioa Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Haren bitartez, Lehendakaritza eta Barne kontseilariaren agerraldia eskatu dute, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzaileari buruz informa dezan.

– Idazkia, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko argitaratzeko epeei buruzko galdera (2771 zenbakiko sarrera) zuzentzeko.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena, euri-jasek eta kazkabarrak Azagran sortzen dituzten arazoei buruzkoa.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Haren bitartez, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Oteiza Fundazioaren Museo-Etxera bisita egin dezan eskatzen dute.

– Zuzenketa, Toki Hitzarmen bat egitea erraz dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko mozioari foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina egina. Mozioa Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

– Zuzenketa, Ikus-entzunezkoen Kontseilua eratzean arau jakin batzuk aplikatu dituzan Nafarroa-

ko Gobernua premiatzeko mozioari Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina. Mozioa Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

### 13an:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Harekin batera, Ripagaina garatzeko tramitearen egoerari buruz Andrés Basterra Layana foru parlamentariak aurkeztutako galderaren erantzuna.

– Lankidetzeta hitzarmen proiektua –Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Osasun Institutu Nazionalak sinatzea–, Aragoiko zenbait herritako ospitale-larrialdiak Tuterako Reina Sofía ospitalean hartzeari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Zuzenketa, Toki Hitzarmen bat egitea erraz dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko mozioari Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak egina. Mozioa Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

– Zuzenketa, Toki Hitzarmen bat egitea erraz dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko mozioari Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak egina. Mozioa Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

### 14an:

– Idazkia, Kontuen Ganbararena. Harekin batera, Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urte anitzeko plana” izeneko 15760-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Nafarroako Unibertsitate Publikoko eraikuntza” izeneko 94005-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Ekipo medikoak” izeneko 95043-8 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Kanpoko kontratazioak” izeneko 09447-7 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Ordainketak obligazioa finkatuak ez betetzeagatik” izeneko 07840-4 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Berariazko prebentzioko eta koordinazioko jarduerak (P.F.D.)” izeneko 17820-4 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Epaiak betearaztea” izeneko 08255-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –277/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Kutsaduraren prebentzioa eta onbideratzea” izeneko 13290-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Sendagaiak” izeneko 26000-8 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “35 orduko lanaldia ezartzeko dotazioa” izeneko 01900-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “FEOGA laguntzak” izeneko 13370-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Dirulaguntzak esnegintza uzteagatik” izeneko 30840-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –287/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Nafarroako Ogasunari buruzko dokumentuak prestatu eta argitaratzea” izeneko 07710-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Epaiak betearaztea” izeneko 08255-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –300/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Epaiak betearaztea” izeneko 08255-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –301/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa.



– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Funtzionamendu gastuak” izeneko 05610-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05620-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05660-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –603/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06160-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –713/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Azterlanak eta proiektuak” izeneko 28930-8 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –1200/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Azterlanak eta proiektuak” izeneko 28930-8 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –1227/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Biltegia eta ekipoak mantentzea eta konpontzea” izeneko 27500-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Egonaldiak beste zentroetan” izeneko 37160-8 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Garraiorako materiala” izeneko 30575-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Nekazaritza sektoreko aldi baterako langileekin lotutako jardueretarako dirulaguntzak” izeneko 30565-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Kontseilu erregulatuzaileei transferentziak” izeneko 31590-2 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Lurraldekonferentzia 2000” izeneko 10315-8 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Erretiro aurreratuagatik kalte-ordaina. 259/1988 Foru Dekretua” izeneko 02550-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Nafarroako jaialdiak eta bestelako programa artistiko bereziak” izeneko 16190-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Liburuak eta bestelakoak argitaratzea” izeneko 16400-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Epaiak betearaztea. Gastu juridiko eta auzibidekoak” izeneko 19615-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –484/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Bilerak, konferentziak eta ikastaroak” izeneko 37620-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Komunikabideetako kanpainak” izeneko 37600-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Konponke-

ta-kontserbazioa” izeneko 06010-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Komunikazio telefonikoak eta CTNerekin kontratua” izeneko 06020-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

– Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, “Ibilgailuak” izeneko 05470-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa.

